

bidegileak



**Fernando Artola *Bordari* (1910-1983)**

Egilea:

**MERTXE EZEIZA**

### **Fernando gaztea**

**F**ernando Artola Sagarzazu, *Bordari*, 1910eko otsailaren 14an jaio zen Hondarribian. XX. mende hasiera hartan Hondarribia, arrantzaleak, kaletarrak eta baserritarrak biltzen zituen herri txikia zen. Bordariren aita-amak hondarribiarrak ziren biak. Fernando Artola, aita, San Nikolas kalean jaio zen eta Baionan ikasitako ebanista zen lanbidez eta lan fin askoak utzi zituen egin-da, besteak beste, Kanbo-n dagoen Edmond Rostand antzerkigilearen *Arnaga* etxeko zurgin lan denak. Luisa, ama, Izena baserriko alaba zen eta Bartzelonan *Vedruna* etxean dontzeila aritutakoa.



Fernando Artola, *Bordari* (1910–1983)

Bordariren aita, lanbidez ebanista zen arren, Hondarribiko parrokiako sakristaua izan zen urte askotan eta ez nolana hiko! Maite-maitea zuen Jainkoaren etxe hura, garbia ez ezik distiratsua izaten omen zuen dena, Hondarribiko historia eta ohiturak ederki ezagutzen zituen eta frantsesez ere ondo moldatzen zenez harro aritzen zen herriko eta parrokiako ikusgarriak bertara biltzen zen



XX. mende hasierako postal honetan, Bordariren aita, Fernando Artola sakristaua. Bordari txikia aingeruz jantzita

turista askori erakusten, gaur egun egin daitezken antzeko bisita gidatuak zuzentzen, garai hartan hasi ziren turistak etortzen Hondarrabira, gehienak txalupan iristen ziren eta asko omen ziren turismoari esker bizi ziren ontzi gidariak ere.

Fernandok eta Luisak hamaika seme-alaba izan zituzten, Bordari laugarrena zen. Luisak eskola baten antzera antolatua zuen familia hartan, zaharrenak jarraian zuenari erakutsi eta lagundu behar zion, modu horretan, elkarrekiko arduraren eraginez. Luisa, kontalari ona zen eta esaera zaharren zalea, egunero

entzuten ziren etxe hartan ama kalakariaren istorioak.

Fernandok txiki-txikitandik erakutsi zituen bere izaera markatuko zuten bi ezaugarriak: bihurria eta arduratsua. Horrelakoxea zen mutikotan, bere anai-arrebek oraindik gogoran dituzte Fernando txikiaren bihurrikeriak, haren umorea, malizia eta bizitasuna, denekin ondo eramateko abildadea omen zuen eta behar zuenari laguntzeko bihotz ona ere bai, baina jolaserako bezala prestatzen zen lanerako eta esate baterako, 7 urte baino ez zituenean, igande goizetan, aitaren aginduari jarrai-



Bordari txikia aingeruz jantzita

tuz meza laguntzera igotzen zen oinez Guadalupera, baita negu gorrian ere. Handik urte askotara ere Bordarik ondo gogoan eta esker onean zuen, bertan alpargata lehorrak eta kafesnezopak eskaintzen zizkion serora anderea.

la egunero laguntzen zion apaizari elizakoak ematera joaten zenean, eginkizun honetan oso maiz ibili behar izan zuen 1918ko gripe sonatuaren garaian. Beraz, goiz asko ikusi zion Fernandok aurpegia heriotzari. Laster konprenitu zuen zein ezberdinak garen hiltzeko orduan ere: batzuk ia lasai eta itxaropentsu

ere bai fedea lagun dutenean; besteak etsituta eta beste batzuk, berriz, desesperatuta.

Bordarik ez zuen eskolan luze aritzeko aukerarik izan, I. Mundu Gerra amaitu eta laster *Banco Vasco* izenekoak zabaldu zuten Hondarribian. Fernandok 14 urte zituen eta La Salle-ko *Freretan* ikasten zuen. Banketxe berritik *botones* bezala lan egiteko deitu zutenean zalantza handirik gabe ikasketak utzi eta etxerako laguntza izango zen lanari heldu zion pozik baina ez zen luzerako izan banketxe honek kiebra jo eta ikastetxera itzuli baitzen.

Ez zen samurra izan itzulera, ordurako aurreratuak baitzeuden bere gelakideak. Borondate handikoa eta saiatua zen Fernando ordea eta ikasketak jarraitu zituen 17 urte bete artean. Orduan bai, eskolak utzi eta Irungo txokolate fabrikan hasi zen bulego lanetan 1936 arte. Bederatzi urte egin zituen bertan.

Garai haietan ez ziren gaur bezala zazpi eta zortzi orduko lan egunak egiten, hamar eta hamabi ordukoak baizik. Hala ere, Fernandok ekintzan aurkitzen omen zuen atsedena eta herriko saltsa guztietako perrexila zen. Berak zioenez, garai hartan oso garrantzitsua izan zen berarentzat On Manuel Elgorriaga apaiza ezagutu izana. Elgorriaga erabat zegoen gazte-ei emana, erlijioa, artea, gizarte gaien inguruan gogoetak eragiteko edota antzezlanak antolatzeko; azken hauek oso gogoko izaten zituen Fernandok, eroso eta zorioneko zen



Artola Sagarazu familia

tranpaldogainean. On Manuelen gomendioz irakurri zuen bere lehenbiziko liburu garrantzitsua euskaraz: Txomin Agirre-ren *Gara*. Badirudi Fernandorentzat egunak 24 ordu baino gehiago zituela garai hartan esandakoaz gainera amari baratzean laguntzeko ere denbora ateratzen baitzuen eta aita makalduta zebilenez –bere azken 25 urteak gaixorik egin zituen– lanera abiatu aurretik egunero joaten omen zen goizeko bost eta erdietan elizara kanpaiak jotzera.

Gizarte arazoekiko arduraz pizteko adina ikustea eta bizitzea egokitu zitzaion Fernandori fabrika hartan lan egiten zuelarik. Erre-

publikaren etorrerak ez zuen atsekabetu, baina «abajo el clero» eta horrelakoak entzuteak mindu egiten zuten eliza inguruan hazitako gazte hura. Behinola, EAJ-k hitzaldi bat eman zuen Hondarribian, berehala bat etorri zen han entzundako guztiarekin, euskaltzalea eta hitza bera ezagutu aurretik «abertzalea» baitzen Fernando.

EAJ-ko alderdikide egin zen 1931n. EAJ-k Tolosan izan zuen batzarrera bidali zuten 1933an, Hondarribiko ordezkari. Handik aurrera batzar guztietara bera joan zen. Esan beharrik ere ez dago zeregin guztietan jartzen zuen grina eta adorea jarri zuela Fernandok



politikan ere eta 1936an gerra oihartzunak Irun eta Hondarribia aldean entzuten hasi zirenean Bidasoaren beste aldera egin zuen. Ordurako hasia zen tarteka, lehenbizi Irungo *El Bidasoa*-ra eta gero *Argia*-ra eta *El Día*-ra ere euskaraz idatzitako lantxoren bat edo bidaltzen, baina hasierako idatz saio haiek ere gerrak itto zituen.



Fernando Artola Sagarazu gaztea

## ***Bidasoaren beste aldean***

Haurtzaroan antzemandako gaixotasun batek neke gehiegizko jostaketetan aritzea galarazia zion, horregatik beragatik libratu zen soldaduskatik eta 1936an mugaz bestaldera egin eta Baionako Kontsuladoan bere gabezia erakusten zuen agiria erakutsi eta gero inolako beharkizunetik aske utzi zuten. Behin Hendaian, bere hasierako asmoa Bilbora egitea izan bazen ere, azkenik eta neurri handi batean familiaren egoerak baldintzaturik bertan kokatzea erabaki zuen, zertan aritzeko eta sukaldari. Izan ere, besteak beste, sukaldean ere abila baitzen Bordari, eta hantxe aritu zen Loiolako Jesuiten etxea zen *Durruty-baitan*, sukaldari, han ez zuen denbora asko egin, morroi gisa ere bizitu zuen zenbait esperientzia eta berak kontatzen zuenagatik ez oso gustagarri. Azkenik Belokeko atea zabaltzen zitzazkion, Ahurtin.

## **Belokeko abadia**

Ahurtiko Abadia beneditarra, Belokeko Abadia guztiz erabakiorra suertatu zen Fernando Artola Bordariren bizitzan, Jean Gabriel Hondet Abade hendaierak egin zion bertan harrera, ezin hobea. Fernandok beti gogoratu ez ezik aldarrikatu egiten zuen Belokeri zenbat zor zion, hango fraide gogoe-talari eta ikastunen artean ikasi zituela berak inongo unibertsitatean ikasteko aukerarik izan ez zituenak.

Lan aukerakoak eta Fernandorentzat egokiak jarri zizkion Aita Abadeak: ondo baino hobeto ezagutzen zituen sakristau lanak batetik; bes-tetik, liburuak josi, kartoiztatu, etab... Esan beharrik ez dago Abadiako liburutegiak ira-kurtzeko eskaintzen zion aukeraz ia debozioz baliatzen zela. Gozatu ederrak hartu zituen Bordarik liburutegi hartan! Eta liburutegian

bezala elizan, beneditarrek kantu gregoriano-ak egiten zituztenean. Betiko geratu zitzaiz-kion kantu haiek bere gogoaren hondo-hon-doan.

Fernando ez zen gerrari ihesi Belokera bildu-tako bakarra, Bilbo galdu ondoren hamabi laguneko taldea ere bildu zen. Fernandok ezin zuen bere inguruan kopetilunik ikusi eta beti aritzen zen txantxetan. Edozer asmatzeko gauza zen lagunak animatzeko eta animo beharrean bera zebilenean bakartu egiten zen elizan edo inguruko basoan. Halako gazte prestu eta umoretsua ikusita ez da harritze-koa Aita Abadeak Fernando tarteka beraien-gana erakarri nahi izatea: «praile izatea gauza handia da», «zu beneditarra izango zara Fernando» eta horrelakoak esaten omen ziz-kion, baina «dei» berezi hori ez zen sekula bere bihotzera iritsi.



Fernando, Belok-en bildutako beste errefuxiatu batzuekin



## Henriette

Pentsatzekoa da Beloken gordeta zeuden lagun haiek zer izango zuten buruan, zein izango zen beren kezka, jakin-mina, zein bere solasgaia: ahal zutenetan ondoko herrira, Bastidara joan ohi ziren. izan ere, bertako denda batean irratia zuten eta haren inguruan biltzen ziren Espainiako gerraren gorabeherak izateko. Fernandorentzat irratia baino zer bait gehiago ere bazen Bastidako denda hartan: Henriette, bertako alaba, zeinekin gero eta errazago egiten zitzaion hitz egitea, gero eta premiazkoago egotea.

Konturatzeko maitemindu egin ziren Henriette eta Fernando. Berehala ezkontzeko tentatuta ere egon ziren. Baina Fernandok nahiago izan zuen andregaiak lehenago bere familiaren ezagutza egin zezan. Hala, pasaportea atera eta Hondarribira etorri zen Henriette bere senargaiaren familia ezagutzera

eta nola ez, Fernandoren inguruko gorabehera guztien kontu ematera.

Hondarribitik itzuli eta ezkondu behar zutenean *Cantabria* itsasontziaren afera sortu zen. Bordeletik gertu, La Canossen, hondoa jota zegoen Santanderretik iheslariekin ateratako itsasontzia eta Espainiako Gobernuak jakinarazi zuen hura berreskuratzeko lanetan lagunduko zuten exiliatuei gutxitu egingo zitzaizkiela beren zigorrak. Hondarribira itzultzeko aukeran pentsarazi zion honek Fernandori eta momentuz ezkontza atzeratzea erabaki zuten. Fernando eta beste exiliatu batzuk *Cantabria* berreskuratzera joan ziren beraz, baina lan txarra zen hura, nekosoegia berarentzat, sukaldari lanetan aritzea lortu zuen ordea. Azkenean, lana amaituta, Pasaiara zetorren atoi-ontzia hartu zuen, lur hartu eta gutxira atxilotu zuten. Fernandok 29 urte zituen.




Henriette Cornu Duclos,  
Fernandoren andregai



Ezkondu behar zutenean Cantabria  
itsasontziaren afera sortu zen

### Gerra ostea

artzelan ez zuen denbora asko egin baina lana, bere fitxa beltza zuenarentzat ez zegoen inon lanik. Lazkaoko Beneditarrek Donostian zuten *Fides* inprimategian hasi zen lanean. Frantzia alemanen mende geratu zen, Henrietteren bi anaiak atxilotu zituzten. Henriettek eta Fernandok ez zuten elkarren berririk, Fernandok enbaxada bidez bidaltzen zizkion gutunak ez baitzitzaizkion sekula iritsi, hala ere, egun on batean Henrietteren mandatu bat jaso zuen Larrun mendian elkar ikus zezaketela adieraziz. Bizitzako egunik zorionsuenetako bat pasa omen zuten. Beste batean Behobian edo Pausuan egin zuten zita. Begirale ale-




1943ko maiatzaren 13an ezkondu ziren

maniarrak adi omen zeuden baina bakean utzi zituzten. Hiru urtetan ez zuten elkar ikusteko beste aukerarik izan. Azkenean, 1943-ko maiatzaren 13an ezkondu ziren, Henriettek bakarrik pasatu behar izan zuen muga, alemaniarrek ez zieten gurasoei Frantziatik irteten utzi, amari zubi erdiraino joateko baimena eman zioten bere suhigaia besarkatu ahal izateko.

Denda txiki bat jarri zuten Hondarribian, baina Fernando ez zen negozio gizona. Are

gutxiago bere benetak ardua isileko lanetan jartzen zuen garai haietan. Izan ere aliatuengana, amerikarrengana, esperantzak jarrita lan egiten zuten artean abertzaleek, eta Fernando aliatuen alde aritu zen klandestinitatean. Trebea zen lan hauetan. Horren frogak badaude. Pentsa, amerikarrek espioi lana ere proposatu zioten!



Alderdiaren aginduetara lan egin zuen Fernandok gerra ostean ere, hemen Jose Antonio Agirre lehendakariak bidalitako gutuna

Portuko San Pedro kalean egin zituzten ezkondu eta lehen urteak Henriettek eta Fernandok. Hor jaio ziren hiru seme-alabak: Lupe, Iziar eta Txomin. Baina arazo ekonomikoak zirela eta, familia lau urtez banandua egon zen, ama-alabak Miarritzen –Henriettek janari denda baten ardura hartu zuen– eta aita-semeak, Hondarribian, izebekin.



Zenbat begiratu egin ote zion Henriettek argazki honi, bananduta izan ziren hiru urte haietan

## Bordari

Osasuna ere kaltetzen ari zitzaizkion ezkutuko lanak utziak zituen Fernandok. Bestelako ardu-  
ra batzuk emanak zizkion, beraz, Alderdiak:  
euskal kultur berreraikuntzaren alde lan egiten  
has zedin, hain zuzen ere; besteak beste, idatziz.

Fernando Artola *Bordarik* 40 urte zituen idaz-  
ten hasi zenean. *El Diario Vasco*k euskal gaiak  
landuko zituen kolaboratzailea behar zuen  
eta Fernando Artola-z akordatu ziren. José  
Berruezo zuzendariarekin izandako bileran  
zegoen Joaquin Zubiria ere, Beloketik ezagu-  
tzen zuen Fernando, lan horretarako lagunak  
aproposena, haren ustez. Eta Fernando aitzia-  
kiatan hasi zenean «ez naiz gazteleraz idazten  
moldatuko» eta antzekoak, berehala eman  
zion erantzuna: «gogora zaite Fernando,  
Beloken aurrean jarritako guztiak hartzen  
zenituen eta ondo ateratzen zinen».

Honetatik ere ondo atera zen. Fernandok  
idatzitako sailak arrakasta izan zuen. Hasiera  
batean «Nere Bordatik» izendatu zituen bere

idazlanak, Bordari ezizenaz sinatzen hasi zen.  
Hau ez da Fernandok erabilitako ezizen baka-  
rra, «Fedea» ere erabili zuen «Fernando de  
Artola» eta herriko Oargui-Kerizpe Elkartek  
argitaratzen zuen *Ondarribi* aldizkarian berriz,  
«Ipar Haize». Dena den, benetan ezaguna eta  
gehien erabili zuena Bordari da. Fernandoren  
amak erabiltzen zituen esaera zahar askoren  
artean «Borda adina bordari» maiz errepika-  
tzen omen zuen eta hortik omen zetorkion  
Bordari ezizena hautatu izanaren arrazoia.

Laster hasi ziren irakurleak galdezka Bordari  
hura zein ote zen. Herri kiroletan zebiltzanak  
ordea laster ezagutu zuten, Fernando herriz  
herri ibiltzen bait zen, ikusi gabeko ezer ez  
zuen kontatzen eta jendearekin, batez ere zeki-  
tenekin, hau da, zaharrekin eta, asko hitz egiten  
zuen. Kirol kronikak egiten hasi eta harrijaso-  
tzaile, aizkolari probatan epaimahaiko izaten  
bukatu zuen, Arriya, Keixeta, Luxia, Mindegia  
eta abarren garaia zen. Ez zegoen jarraitzen ez  
zuen euskal gairik, kirolak, artea edo literatura,  
eta denetan egiten zituen lagunak, lagun onak.



Kirol kronikak egiten hasi eta harrijasotzaile eta aizkolari probatan epaimahaiko izaten bukatu zuen



Lagun onak egin zituen kirolarien artean, hemen Luxia eta beste lagun batzuekin

## **Familia berriro elkarrekin**

Familia 1954an elkartu zen berriro Hondarrbian. Fernando *Florenzio Jauregi*-ren arrastreroen kontabilitatea eramaten hasi zen, hogeitau urte inguru egin zituen lanbide horretan. Henriettek beranduxeago, Paris-en prestatu eta *esthéticienne gela* jarri zuen etxean, lanbide honetan inguruetakoko lehenbizikoa izan zen zalantzarik gabe.

Fernando Artolak azkenik bere familia bilduta, bere bizitza berrantolatua zuen, benetan oso garai emankorra da orduan hasi eta ondorengo urteetakoa.

Batetik elizarekin txikitandik izandako harremanari eusten dio, herrira itzuli eta laster kanpandorrearen ardura hartzen du edota eliz juntako partaide egiten da, bere ilusiorik handiena ezin izan zuen bete halere. Beloketik etorri zenetik Fernandok Lazkaoko Beneditarrek Guadalupera ekarri nahi izan zituen. Izan ere Belokekoen asmoetan zegoen beste komunitate bat antolatzea: Hondarrbiko Udalaren aldetik nahiko aurreratua egon zen proiektua, baina gotzaitegiak zuen azken hitza eta ez zuen begi onez ikusi. Fernandok bere xedea lortu izan balu, gaur egun Guadalupeko Amabirjina izango genuen Arantzazukoaren pare.

Fernandok 1956an galdu zuen ama, urtebete beranduago aita, beraiei eskainitakoak dira bilduman aurkituko ditugun lehen olerkiak. Etengabe idazten du garai honetan, edozein

paper puntetan idatzi ere, olerkiak, ipuinak eta abar. Orduko euskarazko argitalpen ia denetan aurkituko dugu Fernandoren idatziren bat, *Aranzazu, Olerti, Oarso, Anaitasuna, Baskonia, Bidasoa, Egan, Euzko Gogoa*, eta abarretan. 50eko hamarkada honetan idatzi zituen Olaxta poemaren olerkiak, bere Hondarribi itsas-herri maiteari eskainitako 40 olerki. Geroago, 1975. urtean, bere semeak, Txomin Artolak, bertako zenbait olerki musikatatu eta bere lehen diskoa argitaratu zuen, berorri esker iritsi da Bordariren hainbat olerki *Txakurraren partia, Alargunaren negarra*, etab. hainbeste jenderengana.

Euskaraz bezala erdaraz ere idatzi izan zuen, *El Diario Vasco*-n adibidez. Aipagarria da Florentino Porturen *Santuario de Guadalupe-Guadalupeko Ama* (1978) izeneko monografiari egin zion *A modo de comentario* izeneko hitzaurrea ere.



*Olaxta*, bere Hondarribi itsas-herri maiteari eskainitako 40 olerki, marrazkia ere berea da





Hiru seme-alabekin, Lupe, Iziar eta Txomin

## Bidasoa aldeko ertilaria

Fernandok esku ona zuen ia edozertarako, jaki goxoak prestatzen eta sukaldeko saltsen artean bezain eroso sentitzen zen oleo pintura artean. Familian ez ezik, Hondarribiko etxe askotan ere aurkituko ditugu Fernandoren margoak. Batek daki euskara eta aberriaren aldeko hain militantea izan ez balitz ez ote genuen Fernandoz hitz egin beharko Bidasoak eman dituen margolarien arteko beste kide bat bezala. Nonahi aurkitzen dira

Fernandok egindako marrazkiak baita bere paperen artean ere. Inoiz pintura lehiaketaren batera ere aurkeztu zen eta baita saritxoren bat eskuratu ere.

Literatura eta pinturaren arteko uztarketa bat antzematen du Juan Mari Lekuonak Fernandoren olerkigintzan, *Bakoitzak berearen bigarren aleari, olerkiak biltzen dituenari, hitzaurrea egiten dionean horrela dio: «Bidasoa ertzeko ertilarien erraiñua: Bidasoa erre-karen azkeneko inguru-lurrek zerikusi jakina*



Bordari, Basurko, Basarri eta Satarka. Argazkiaren atzealdean horrela dio: "Ederki bazkaldu ondoren (nere sari baten kontura) La Perlara goaz, bertsolari txapelketa batera, Lexoti etab. aurkeztu ziren"

izan dute literaturarekin, eta zer esanik ez pinturarekin. Idazlarien eta margolarien txokoa dugu. Sentiberatasun berezia dute hango ertilariek. Eta ezin libra zitekeen Fernando ere horrelako eragin artistikotik. Nabaria da *Bordariren* poemek argiarekin eta konposizio plastikoarekin duten kidetasuna. Inpresionismotik asko dute hemengo poemek; asko ebokaziotik, asko pintzelkada fin eta aukeratuetatik. Irudien aukera arte plastikoan eraginez ikusia eta finkatua dirudi. Ongi aukeratu-tako irudi mundu plastikoa. Eta plastikaren erritmoa da gaien, emankizun ezpazialagotan. Xehetasun nabariak datozkio egileari Bidasoako arte-girotik».

Juan Mari Lekuonak hitzaurre honen hasieran dio: «Oraintsu dela hogeitamar urte, Ferdandoren etxean biltzen ginen bidasotar eta ingu-

ruko zenbait olerkari: Klaudio Sagarzazu, *Satarka*, Juan Basurko, Fernando Artola. Manuel Lekuona eta neroni ere bai, nahiz eta olerki lanetan hasi berria eta gazteegia nintzen orduan. Eguneko otordua, Bordarirekin gertatu ohi denez, iastagarria bezain esker-tzekoa izaten zen. Eta mahai-inguruan, mila berri aipatu ondoren, poesi irakurketa izaten genuen bazkalondoko hitzaspertua». Honen aurretik beste aipamen hau ere egiten du «berari esker nire leihatila zabaldu nuen mugaz-bestaldekoen kultur pentzera». Askok dira Ferdandori hau eskertu diotenak, Euskal Herriko Ipar eta Hegoaldearen arteko zubi egin izana, zubi aktiboa.

Xabier Aranburuk, *Hondarribia* aldizkariak 2000. urtean Fernando Artolari eskaini zion ale berezian Lekuonaren antzeko oroigarriak



1961ean Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen. Hemen, 1963ko bilera baten ostean

ditu Bordari gogoan «bagenuen lau hondarri-  
biarrok gure Ateneo berezia, elkartzeko toki  
aproposa. Zeintzu ginen? *Satarka*, *Bordari*,  
Rafael Artola eta ni.....bai *Satarkak* eta bai  
*Bordarik*, zeuden lan literarioak irakurtzen  
zituzten, lan berriak, noski, beste hiruren eri-  
tziak jakin nahiaz. Lehenengoak ginen hainbat  
aldiz, gero sarituak izango ziren olerkiak eza-  
gutzen. Euskal gramatika gaietan Rafael zen  
lauren artean jakintsuena, eta *Bordarik* esaten  
zuen bezala, horratze-estua erabiltzen zuen».  
Aurrerago egiten du Iparraldekoari buruz  
erreferentzia «Fernando zen Iparraldeko kul-  
tur mugidari buruz gehien zekiena. Maiz  
etortzen zen *Gure Herria* aldizkaria eskuetan,  
zerbait denoi irakurri nahiaz. Berak ekartzen  
zizkigun Laffitte, *Iratzeder*, Peillen eta Miran-  
deri buruzko berriak. Eta denon solasez sor-  
tzen genuen kanpoan aurkitzen ez genuen  
giroa».





Bedoñan, Loramendiren etxe-atarian, Bordari, Aita Lurre,  
Aita Gandiaga eta Aresti

## Euskaltzaleen sarea

Bere etxean nahiz Rafael anai apaizarenean sarritan izaten zituzten literatur tertuliak beraz, euskal kulturaren basamortu hartan benetako oasiak, baina bestela ere euskal kulturaren bidegile haiek sekulako komunikabide sarea egina zuten beraien artean, egungo e-mailak bezain azkarrak ez ziren izango baina postazko harremanak arin askoak ziren eta edozertarako erabiltzen zituzten, ikusi besterik ez dago Fernandoren paperen artean aurkitzen ahal diren eskutitzak eta oharrak, bertso jaialdi baterako hitzordua jartzen, liburu baten

berri ematen, idazlan bat eskatzen, literatur sariketa baterako gonbitea egiten... Angel Irigaray, Jon Etxaide, Koldo Mitxelena edo Gabriel Aresti... izen gutxi batzuk aipatzearren, denek kontatzen dute momenturen batean edo sarritan Fernandorekin, eskutitzetan nabarmena da zein den hurbil erraza. Aurrerago aipatu argitaldarian, Juan San Martinek, hirurogeigarren hamarkada gogoan, horrela dio «[...] Eibarren zenbait urtez egona zen Aita Santi Onaindiak, Karmelitek Zorrotzan duten Larrea komentuko klausurara urtero zenbait idazleri dei egiten zigun eta han




Ezagutu zuten guztiek aipatzen dute Fernandoren bihotz zabala. Gutun honetan Etxahunek, Hondarribian pasatako eguna eskertzen dio, aldameneko oharrean dio kanta bat egiten ari zaiola



izaten ginen Fernando Artola eta biok urterik falda gabe. Oroitzen naiz han biltzen ginenen artean baikorrena eta umoretsuena zela gure *Bordari*, bazkalondoan zenbait historia zelebren kontatuz eta horrez gainera bertso eta kantaz elkarren arteko giroa alaikiro piztuz».

Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1961ean, esan daiteke bereziki bi mailatan saiatu zela Fernando, batetik bertso larritza munduan eta bestetik lexikoan, Hondarribiko marinelen hitzak bilduz eta oro har hain kuttuna zuen Hondarribiko euskarari eutsiz.



Gabriel Arestik poesia liburu berri bat argitaratu behar duela eta liburua saltzeko edo saltzen laguntzeko idazten dio



Bordari, Euskal Herriko Ipar eta Hegoaldearen arteko zubi. Lafitte, Xalbador eta Uztapiderekin

## **Bertsolaritza**

ikolas Aldai kazetariaren hitzak erabiliko ditugu ondoren Bordarik bertsolaritzan izan zuen garrantzia ezagutzeko: «la dena debekua zen garaian, Euskaltzaindiaren eskutik eta babesean bertsolaritza gorena lantzeko eta, besteak beste, euskarazko zerbait arnasteko bitarteko bezala, Txapelketak antolatzeari ekin zitzaionean, Bordari puntako izan zen. Behar zena egiteko prest: gaiak prestatzetik hasi eta epai-mahaikide izateraino[...] ikuskizunak erakargarritasunik izan zezan, moldeak eta moduak zaindu eta landu beharra zegoen.

Lehia-modu berriak behar ziren. Eta *Bordari* izan zen *Kartzelako lana* bezala



1962an, Beasain-en, Lazkao-Txiki txapeldunarekin

ezaguna den ariketa asmatu zuena. Bai bakar-ka kantatu arazi, eta bertsolari bakoitzaren abildadeak eta sormen gaitasuna gehiago nabarmentzeko; eta baita binaka, ofiziotarako zereginean kantatu arazi, eta norberarenari ertsiz kantu-lagunaren arrazoiketa gainditze alderako argudio ahalmenak saritzeko bitarteko bezala ere.



zela bere jokabidea mugaz bi aldetako bertso-  
lariak elkarrekin aritzeko eta elkarri ulertze-  
ko orduan, izan ere Xalbador edo Mattin  
lagun onak zituen eta Fernandok Hegoaldera  
etortzeko konfidantza eman zien, bidea  
erraztu, eta gogo onez etortzen ziren.

Bordarik denbora asko ematen zuen bertso  
saioak prestatzen, jaialdiak interesgarriago  
eta biziago izan zitezien. Fernandori eta bera-  
rekin aritzen ziren beste lagun askori, San  
Martini, Aranaldi eta abarri esker indartu  
eta berritu zen bertso-laritzia.



1966ko irailaren 11n hil zen Henriette.  
Hemen urte batzuk lehenago, Sevillan

## Alargunaren negarra

Henriette 1963an gaixotu zen. Minbiziari hiru  
urtez aurre egin ondoren 1966ko irailaren  
11n hil zen. Seme-alaben esanetan geroztik  
aita ez zen pertsona bera izan. Fernandok  
Henriette galdu eta gero idatzi zituen *Gorain-  
tzi*-ko olerkiak, 1968an argitaratu zirenak.  
Horrela dio hitzaurrean: «Emaztea galtzea  
zerbait da. Ez dakit olerkari naizenik; bihotz  
samur-bera dutela, ori bai, badakit. Nereak  
har dezan deskantsu, arteka behartua nauzu  
gogoeleketa bide, sentimenak agertzera».

Juan Mari Lekuonak berriz ondoko gogoeta  
egiten du: «Heriotzak ere badu hots berezi-  
rik Bordariren sentipenetan. Bere *Goraintzi*-  
ren unetatik, herioaren dinamikak eragin  
bortitza du bere poesiagintzan. Kanpaiak,  
ostiralak, Nekaldiko sinboloak, geroko bizi-  
tzaren esperantzak hilekiko ematen dioten  
lotura bizia, heriotzaren gaintik eguneroko-  
tasunean bereekin bizi duen harreman her-  
tsia. [...] Umorea ere barne; eta gauza txikien  
idealizatzea...», Begoni ederra izeneko oler-  
kia dugu azken gogoeta hauen eredu bikaina:



Oroitzen zera, Henriette,  
nola zuk eztiki  
zaintzen zenun  
Begoni landare ura?

Olerki hau, Aita Onaindiak bere *Antología de  
las 100 mejores poesías de amor de la lengua  
vasca* liburuan sartu zuen. Esan beharra dago  
olerki honetako begoniak bizirik dirauela eta  
ugalduz doala Artolatarren artean.

Iratzeder-ek frantsesera itzuli zuen, 1969an, *Goraintzi*, *Bonjour à toi* izena eman zion olerki bildumari. Olerki hauek eta Bordarik idatzitako gainerantzeko ia denak *Bakoitzak berea-ren bigarren alean* aurkitu ahal ditugu 423 orrialderen barrena.



Xalbador bere lagun handiarekin



Iratzeder beneditarrak itzuli zuen frantsesera *Goraintzi*



## Bordari hizlari

Fernandok, hizlari bezala ere demanda handia zuen, izan ere antzezlari aparta zen eta berehala bereganatzen zuen jendearen arreta osoa. Goitik behera prestatzen zituen bere hitzaldiak, izan ere Fernando irakurle handia zen eta bere jakin-mina ase ezina. Berdin zitzaion ordu erdiz ala ordu eta erdiz aritu behar bazuen ere, erlojua aurrean jarri eta ongi baino hobeto neurtzen zituen bere hitzak.

Hitzaldi haiek sekula ez zuten dramatizazio, umore eta ironia faltarik. *Bakoitzak berea*-ren lehen alean biltzen diren ipuin, saiakera eta prosa lan ezberdinetan haietako hitzaldi batzuk topatuko ditugu. Baina, jakina, ez da gauza bera hauek irakurtzea ala Fernando entzutea. *Uso xuriari* eskainitakoa antologiakoa zen. Noeren untziko usoa aipatzen hasi,

Izpiritu Santuarekin jarraitu, kantuetako uso kuttunaz aritu eta margolanetan, Erromako katakonbetan ala Picassoren lanetan aurkitzen direnak aipatuko zituen ondoren. Ez zituen ahazten mundu guziko hirietan gure artean bizi diren usoak, ez eta La Fontaine, San Juan de la Cruz edo Menendez Pidalen idazlanetakoak edota ehiztarietako hainbesteko estiman dituztenak ere. Azkenik, askorentzako jaki goxo izanez amaiera duen usoari buruz gogoeta egiten zuen. Bordariren hitzaldiak erudizio, ironia eta umorez beterik zeuden beti. Horregatik zuten halako estima jende artean.



Sariketa askotara aurkeztu zituen Bordarik bere lanak



Bordarik sari asko irabazi zituen, olerki nahiz ipuinengatik

## Fernando herriari

Maite-maitea zuen Fernandok bere herria, Hondarribia, askotan margotu zuen, berari eskaini zizkion olerkiak eta kuttun-kuttuna zuen bertako hizkera ere, horrela zioen 1980an Euskaltzaindiak Hondarribian egindako batzarrean: «[...] Gañikera, bukayera, galdeyera, denakeri, ta onelako eunka txirla; batzuek betiak, bestiak utsak, tarteka, ostra bat edo beste, perla, kolorezko perla interesdukin. Ni, enaiz biltzalle jatorra, sayatu nai duenak atzemango littuzke ubari».

Fernandok herriko ospakizun ugaritan ere parte hartzen zuen, Alardean hachero eta Eguberritan *Baltasar Erregea*, bera izan zen lehenbiziko Olentzaro eta Eguberri kantuen lehiaketaren sustatzailea. Bordarirena da *Arrauna bizkarrian* eguberri kanta, Hondarribiarrek aspaldi herrikoitu zutena eta egun denok ezagutzen duguna. Antzezleri bezala jendeak asko maite zuen, hain zen xelebrea eta naturala, baina erdiak asmatzeko gauza zen eta ez zen oso eroso izango berarekin tranpaldo gainean aritzea.

Hondarribiko etxe eta denda bati baino gehiagori jarri zion izena Bordarik, askotan etortzen zitzaizkion etxera jaio berrientzako euskal izenen bila ere.

Elizarekin oso harreman estua mantendu zuen beti, irakurraldiak eta kantuak euskarazten zituen. Noiz edo noiz urrutirago ere joan zen, 1970ean esate baterako, Ostiral Santu egunerako Bordarik idatzitako funtzio batek erabat hunkitu zituen Portuko elizara hurbildu zirenak.

Fernando Artola Sagarzazu, *Bordari*, 1983ko otsailaren 3an hil zen Hondarribian, Jainkoa eta Henriette ikusteko pozean:

Eta,  
Orai banoa.  
Gainean dut epea  
Zer poza nerea!  
Banoa:  
Ikustera ene begiz  
Jainkoa,  
ta  
Maitea!

Urtebete lehenago kaleratu zituen Sendoa argitaldaria, aurrerago aipatu dugun *Bakoi-tzak berea* izeneko bi liburuak, bertan daude Bordariren lanik gehienak, ipuinak, kondairak, pasadizoak, antzerki bat (bakarrizketazkoa) eta olerkiak. Urte berean, 1982an, *Auspoa* argialetxearen eskutik *Aritz beraren adarrak* kaleratu zen. Eleberri hau Fernandok bere anaia Rafealekin idatzi zuen, oroitzapenen liburua da, Hondarribiko Udalak antolaturiko *Eleberri Labur Saria* irabazi zuen 1977an.

## Herriak Bordariri


Hondarribiko Udalak bi sariketa eratu zituen, 1984ean, bere bi seme kuttunen gogoangarri, Satarka olerki saria eta Bordari ipuin saria. Abenduaren 2an lehen sari banaketarekin batera Hondarribiak omenaldia eskaini zion Bordariri, bertso jaialdi hunkigarriak eman zion amaiera egunari.

1997an, Hondarribiko Udalak Bordari izena eman zion alde zaharreko kale txiki bati, bere jaiotetxetik ez urruti.



Fernando Artola Hondarribiko Alardean. Hacheroen cabo bezala irten zen lehen urtean, 1959an

Modu berezian omendu nahi izan zuen Hondarribiak Bordari, 2000. urtean. Besteak beste, bere jaiotetxean oroitarri bat jarri zuten «Hemen, Fernando Artola Bordari –euskalzalea– jaio zen». Urte berean, Fernandoren senideek honen liburutegiaren dohaintza egin zioten herriari, kultur etxe berrian «Bordari Aretoa» izendatuko den gelan izango dira denen eskura.



Hondarribian, kultur etxe berriko “Bordari Aretoa”n Fernandoren liburutegia denen eskura izango da

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Artola sendia*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.  
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.  
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1861-4 (Lan osoarena)  
84-457-1864-9

L.G.: VI-444/02

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística